

## LASARTE-ORIAN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ERREGIMENA ARAUTZEKO ORDENANTZA

## ORDENANZA REGULADORA DEL RÉGIMEN DE LA VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN LASARTE- ORIA.

### I.- SARRERA

Azken urteotan, etxebizitzen eskaintzak berekin ekarri du prezioak eta etxebizitza hutsen kopuruak gora egitea. Gainera, egoera horretatik ez da segitu herritarrek etxebizitza eskuratzeko baldintzak hobetzea. Aitzitik, prezioen gehikuntzak hainbesteko desfasea eragin du etxebizitzen prezioen eta soldaten artean non etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko zaila izan baita eta herritar asko etxebizitza lortzeko gehiegizko ahalegina egitera behartu baititu beren bizitzaren parte handi batean.

Eszenario horrek justifikatu egiten du Udalak jarduketa bat egitea herritarrek etxebizitza neurrizko prezioan lortu ahal izatea errazteko. Jarduketa horrek ondoko helburu hauek erdietsi nahi ditu:

Lehenik eta behin, lehentasunezko helburua da etxebizitza babestuak bere pisua handitzea munizipioaren etxebizitza merkatu osoan, etxebizitza libreen merkatuetara arazoizko ahaleginen bidez iritsi ezin diren herritarren premia hobeto asetzeko tresna moduan.

Bigarrenik, edukitzeko formen artean oreka handiagoa izaten laguntzea, alokairua sustatuz jabetzarekin parekatzera bidean. Alokairua sustatzeak errenta txikiak dituzten kolektiboak eta premia bereziak dituztenei egiten die mesede, eta, gainera, hutsik dauden etxebizitzen parkea mobilizatzen laguntzen duen neurrian, baliakizun natural eta ekonomikoen erabilera efizienteagoa dakar.

Eta, hirugarrenik, kontua da etxebizitzen tipologiak familien premietara moldatzea, bizimodu berrietara eta egungo familia-estrukturara egokituz, bai eta adineko pertsonen eta desgaitasunen bat dutenen eskuratzeko premia handiagotara ere.

Lasarte-Oriako Udalak, Ordenantza honen bitartez, Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa sortuko du, denboran izaera irekia izango duena, bertan jasotzeko Lasarte-Oriako herritarren eskaerak, halakoenak non, etxebizitza babestuen gaian dagoen araudian oinarritutako betekizun batzuk betetzen dituztelarik, gai horretako promozioetan adjudikatario izan baitaitezke, bai udalaren partzeletakoetan, bai pribatuetakoetan, betiere etxebizitzak adjudikatzeko kudeaketaren ardura Lasarte-Oriako Udalari ematen bazaio.

### I.- INTRODUCCIÓN

En los últimos años la oferta de viviendas ha traído consigo el incremento de los precios y del número de viviendas vacías. Además esta situación no se ha visto acompañado de una mejora de las condiciones de acceso de los ciudadanos a la vivienda. Antes bien, el incremento de los precios ha generado tal desfase entre los precios de la vivienda y los salarios que el acceso a una vivienda digna y adecuada ha sido difícil y ha obligado a muchos ciudadanos a hacer un esfuerzo excesivo durante gran parte de su vida para acceder a una vivienda.

Este escenario justifica una actuación por parte del Ayuntamiento para facilitar el acceso de los ciudadanos a una vivienda asequible. Esta actuación pretende alcanzar los siguientes objetivos:

En primer lugar, el objetivo prioritario es que la vivienda protegida amplíe su peso en el conjunto del mercado de la vivienda del municipio, como instrumento para mejor satisfacer las necesidades de los ciudadanos que no pueden acceder, mediante esfuerzos razonables, a los mercados de vivienda libre.

En segundo lugar, contribuir a un mayor equilibrio entre las formas de tenencia, fomentando el alquiler hacia una equiparación con la propiedad. El fomento del alquiler favorece a los colectivos con menores rentas y a aquéllos con necesidades especiales y, además, en la medida en que contribuye a movilizar el parque vacío, a un uso más eficiente de los recursos naturales y económicos.

Y en tercer lugar, se trata de adaptar las tipologías de vivienda a las necesidades de las familias, adecuándolas a las nuevas formas de vida, a las actuales estructuras familiares, y a las crecientes necesidades de accesibilidad de personas mayores y personas con discapacidad.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria a través de la presente Ordenanza, creará un Registro de Solicitantes de Vivienda Protegida de forma permanente, para recoger las peticiones de los ciudadanos de Lasarte-Oria que, reuniendo unos requisitos basados en la normativa existente en materia de vivienda protegida, puedan ser adjudicatarios de las promociones que, en dicha materia, se desarrollen tanto en parcelas municipales como en aquellas privadas cuya gestión de adjudicación de viviendas se encomiende al Ayuntamiento de Lasarte-Oria

Era berean, kontua da Udalaren etxebizitza, garaje eta trasteleku tasatuen babes publikoko erregimen juridikoa ezartzea eta Lasarte-Oriako Udalak sustatu edo itundutako babes publikoko etxebizitzak eta haien eranskinak eskuratzeko baldintzak eta adjudikatzeko sistema finkatzea.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzak eta beste administrazio publiko batzuek beren eskumenak egikaritzuz onetsi dituzten eta zuzenean eta nahitaez aplikatzekoak diren xedapenek ezarritako lege-esparruaren barruan.

## **II.- ORDENANTZAREN XEDEA**

### **1. artikulua.- Ordenantzaren xedea.**

1.- Ordenantza honen helburua Udalaren etxebizitza, garaje eta trasteleku tasatuen babes publikoko erregimen juridikoa ezartzea da, eta Lasarte-Oriako Udalak sustatu edo itundutako babes publikoko etxebizitzak eta haien eranskinak eskuratzeko baldintzak eta adjudikatzeko sistema finkatzea, bai halaber Lasarte-Oriako udalherrirako Etxebizitza-eskailen erregistroa sortzea.

Beraz, araudi aplikakizunaren arabera Babes Ofizialeko Etxebizitza gisa kalifikatzen diren etxebizitzak eta eranskinak arautzen ditu, bai halaber Udalaren Etxebizitza Tasatuak eta haiekin asimilatutako garaje eta trastelekuak.

Lasarte-Oriako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa sortuko da, zeinak xede nagusizat izango baitu babes publikoko etxebizitza, garaje eta trastelekuen adjudikazioa kudeatzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren datuak hornitzea Lasarte-Oriako Udalak esku hartzen duen kasuetan.

Babes Publikoko Etxebizitzek beti izango dute etxebizitza babestuen kalifikazioa, eta, horrenbestez, beti egongo dira lotuak eskualdatzeko prezio gehieneko bati bezala lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak baliatzeari. Beraz, desjabetu ahalko dira beren xede hori ez badute betetzen.

2.- Ez dira Ordenantza honen xede urgentzia sozialeko premiei erantzutera bideratuak dauden eta Udalak arau honetan erregelaturiko adjudikazio-prozeduratik kanpo uzten dituen etxebizitzak, horiek Etxebizitza Sozialen Alokairuko Erregimenari buruzko Erregelamenduan ezarritako erregimenari lotuak geldituko baitira.

### **2. artikulua.- Udalaren Etxebizitza Tasatuak.**

1.- Lasarte-Oriako udalerrian, Udalaren Etxebizitza Tasatuzat (UET) kontsideratuko dira, beren salmentako edo alokairuko prezioa mugatua dutelako eta Ordenantza honetan zehaztutako gainerako baldintzak betetzen dituztelako, Udalak hala kalifikatzen dituenak. Udalaren Etxebizitza Babestuaren (UET) izaera horrela kalifikaturiko garaje eta trastelekuetara ere zabaltzen da, etxebizitza bati uztartuak egon edo ez.

2.- Babes-erregimen horretan sartuko dira:

Asímismo se trata de establecer el régimen jurídico de protección pública de las Viviendas, garajes y trasteros Tasadas Municipales, los requisitos de acceso y el sistema para adjudicar las viviendas de protección pública y sus anejos promovidas o concertadas por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria

Todo ello dentro del marco legislativo establecido por las disposiciones aprobadas por el Gobierno Vasco y por otras Administraciones Públicas en el ejercicio de sus competencias y que resultan de aplicación directa y obligatoria.

## **II.- OBJETO DE LA ORDENANZA**

### **Artículo 1.- Objeto de la Ordenanza.**

1.- La presente Ordenanza tiene por objeto establecer el régimen jurídico de protección pública de las Viviendas, garajes y trasteros Tasadas Municipales, los requisitos de acceso y el sistema para adjudicar las viviendas de protección pública y sus anejos promovidas o concertadas por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria; así como establecer un Registro de Solicitantes de Vivienda para el municipio de Lasarte-Oria

Regula, por tanto, las viviendas y anejos que conforme a la normativa aplicable se califiquen como Vivienda de Protección Oficial, así como la Vivienda Tasada Municipal y los garajes y trasteros asimilados.

Asímismo es objeto de la presente ordenanza la creación del Registro de Solicitantes de Vivienda de Lasarte-Oria que tiene como finalidad principal la de facilitar los datos precisos para la gestión y control de la adjudicación de viviendas, garajes y trasteros de protección pública en que intervenga el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Las Viviendas de Protección Pública tendrán la calificación permanente de viviendas protegidas y, consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente tanto a un precio máximo de transmisión, como al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto, pudiendo resultar expropiadas en caso de incumplimiento de su finalidad.

2.- No es objeto de esta Ordenanza aquellas viviendas destinadas a atender necesidades de urgencia social y que el Ayuntamiento excluya del procedimiento de adjudicación regulado en esta norma, las cuales quedarán sujetas al régimen establecido en el Reglamento sobre el Régimen de Alquiler de Viviendas Sociales

### **Artículo 2.- Viviendas Tasadas Municipales.**

1.- En el municipio de Lasarte-Oria tendrán la consideración de Viviendas Tasadas Municipales (VTM) las viviendas que, por tener limitado su precio de venta o alquiler y cumplir con los demás requisitos establecidos en esta Ordenanza, sean calificadas así por el Ayuntamiento. El carácter de Vivienda Tasada Municipal (VTM) se extiende a los garajes y trasteros así calificados, estén o no vinculados a una vivienda.

2.- Se acogerán a este régimen de protección:

- a) Izaera berdineko elementuek osaturiko egoitzazko eraikuntza multzo baten parte diren etxebizitzak, honako kasu hauetako edozeinetan:
  - Hirigintzako plangintzak espresuki erabilera horretarako kalifikaturiko lur-zoruetan egiten direnak.
  - Egoitzarako lur-zoru libreetan sustatzen direnak, etxebizitzan sustatzailearen eta Udalaren artean akordioa edo hitzarmena badago.
  - Udalaren titularitateko lur-zoruetan egiten direnak, Udalak horrela ezartzen badu.
- b) Izaera berdineko elementuez osaturiko egoitzazko multzo baten parte izan ez arren, udalaren etxebizitza tasatu gisa kalifikatzen diren udalaren titularitateko etxebizitzak. (UET)

### 3. artikulua.- Udalaren Etxebizitza Tasatuen babes-erregimenak.

Udalaren Etxebizitza Tasatuen babes-erregimenak, haien salmentako eta alokairuko prezio gehienekoaren arabera, honako mota hauetan sailkatzen dira:

- a) Erregimen Orokorreko Udalaren Etxebizitza Tasatuak (EOUET).
- b) Erregimen Bereziko Udalaren Etxebizitza Tasatuak (EBUET).

### 4. artikulua.- Udalaren Etxebizitza Tasatuen ezaugarriak.

1. Lasarte-Oriako Udalaren Etxebizitza Tasatuek, haien bi erregimenetako edozeinetan (erregimen orokorra eta berezia), ezingo dute 90 m<sup>2</sup>(t) baino gehiagoko azalera erabilgarria izan, salbu eta, salbuespen gisa, behar bezala egiazaturiko arrazoi teknikoengatik eta Udalak alde aurretik onartuta, 90 metro koadro erabilgarri baino gehiagoko etxebizitzak izango badira edo familia edo bizikide-unitate ugarietzat bereziki destinatuak badira, ezen eta, kasu horretan, ezingo baitituzte 120 m<sup>2</sup>(t) baino gehiago izan, eta sustapen bakoitzean gehienez ere kopuru totalaren 100eko 5 arte xedatu ahalko baitira horretarako.

2.- Izaera orokorrez, Udalaren Etxebizitza Tasatu guztiek izango dituzte uztarturik aparkalekuko plaza bana eta trasteleku bana, zeinek ezingo baitute, hurrenez hurren, 30 m<sup>2</sup>(t) eta 10 m<sup>2</sup>(t) baino gehiagoko azalera izan, eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu beharko da izaera uztartu hori. Hala ere, baldin eta eraikuntza jakin batzuetan teknikoki ezinezkoa bada aparkaleku eta/edo trasteleku horiek egin edo neurri horietara mugatu, eta behar bezala horrela egiaztatzen bada, Udaleko Administrazioak edo haren entitate kudeatzaile instrumentalak baldintza hori kendu edo aldatu ahalko du.

- a) Las viviendas que formen parte de un conjunto edificatorio residencial compuesto de elementos de igual naturaleza, en cualquiera de los siguientes supuestos:
  - Que se promuevan sobre suelos calificados por el planeamiento urbanístico expresamente para este uso.
  - Que se promuevan sobre suelos residenciales libres existiendo acuerdo o convenio entre el promotor de las viviendas y el Ayuntamiento.
  - Que se promuevan sobre suelos de titularidad municipal y así lo establezca el Ayuntamiento.
- b) Las viviendas de titularidad municipal que, aún sin formar parte de un conjunto residencial compuesto de elementos de igual naturaleza, se califiquen como vivienda tasada municipal (VTM).

### Artículo 3.- Regímenes de protección de las Viviendas Tasadas Municipales.

Los regímenes de protección de las Viviendas Tasadas Municipales, se clasifican, en función de su precio máximo de venta y renta, en las siguientes clases:

- a) Viviendas Tasadas Municipales de Régimen General (VTMG).
- b) Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial (VTME).

### Artículo 4.- Características de las Viviendas Tasadas Municipales.

1. Las Viviendas Tasadas Municipales de Lasarte-Oria en cualesquiera de sus dos regímenes general y especial, no podrán disponer de más de 90 m<sup>2</sup>(t) útiles de superficie, salvo que, excepcionalmente, por razones técnicas debidamente acreditadas y previamente aprobadas por el Ayuntamiento vayan a resultar viviendas de más de 90 metros cuadrados útiles o se trate de las específicamente destinadas a familias o unidades convivenciales numerosas, en cuyo caso no podrán exceder de 120 m<sup>2</sup>(t) útiles, y de las que sólo podrán destinarse en cada promoción hasta un máximo del 5 por 100 del número total.

2. Con carácter general, todas las Viviendas Tasadas Municipales tendrán una plaza de aparcamiento y un trastero vinculados, que no podrán tener una superficie superior, respectivamente, a los 30 m<sup>2</sup>(t) y los 10 m<sup>2</sup>(t) útiles y cuyo carácter vinculado se deberá inscribir en el Registro de la Propiedad. No obstante, si técnicamente la disposición de aparcamiento y/o trastero, o las citadas dimensiones, no resultaren posibles en construcciones concretas, y así se acreditara debidamente, la Administración Municipal o su entidad gestora instrumental, podrá eximir o variar este requisito.

3. Udalaren Etxebizitza Tasatuek, beren garaje eta trastelekuekin, nahitaez bete beharko dituzte dagokien hirigintzako plangintzan edo udal-araudian edo, horrelakorik ezean, administrazio autonomikoaren Babes Ofizialeko Etxebizitza Tasatuetarako (BOET) zehazturiko baldintza teknikoak eta diseinuzkoak, eta, horiek ezartzen ez diren bitartean, Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzeari beharresten zaizkienak.

## 5. artikulua.- Udalaren Etxebizitza Tasatuen kalifikazioa.

1. Kalifikazioa prozedura administratibo bat da, zeinaren bidez egiaztatzen baita ea udalaren etxebizitza tasatuetarako beharretarako ezaugarriak eta baldintzak legezkoak diren eta ea betetzen diren, eta, hala behar badu, haren deklarazioa egiten da, ordenantza honen eta aplikakizun zaien araudiaren arabera dagozkion ondorioekin.

2. Udalaren Etxebizitza Tasatuen bi mota horien (Erregimen Orokorra eta Erregimen Berezia) kalifikazioa eraikuntzarako eta lehen aldiz okupatzeko lizentziak baino lehen edo aldi berean tramitatuko da, eta eskumena duen udal-organoaren ebazpenaren bidez gauzatuko da, sustatzaileak hala eskatuta. Kasu berezietan, kalifikatzeko prozedura lehen aldiz okupatzeko lizentzia eman eta gero garatu ahalko da.

Lizentzia horiek ez dira eraukiko baldin eta kalifikazioa ez bada eskatzen edo bidezkoa ez bada, Hirigintzaren Plangintzak edo aplikakizun zaien araudiak kalifikazio hori behartzen duen kasutan.

3. Kalifikazioaren eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztuko da gutxienez:

- a) Sustatzailearen identifikazioa (baltzuaren merkatu-izena, identifikazio fiskala eta helbidea) zuzenbidearen arabera nahikoa den agiriaren bidez.
- b) Etxebizitzaren kategorizazioa, Erregimen Orokorri ala Erregimen Bereziari dagokion arabera.
- c) Kalifikatu eta eraiki beharreko etxebizitzaren zerrenda, etxebizitza bakoitzaren, garajeen eta trastelekuaren azalera erabilgarria adierazita eta elementu horien arteko lotura zehaztuta.
- d) Etxebizitzak eskuratzeko erregimenaren eta hasierako erabilaren zehaztapen espresua, etxebizitzaren xedea eta destinazioa haien adjudikatarioen ohiko egoitza eta bizileku iraunkorra izatea dela espresuki adieraziz eta onartuz.
- e) Elementu bakoitzaren salmentako edo alokairuko prezioa, zeina ezingo baita araudian zehazturiko salmentako eta/edo alokairuko prezio gehienekoa baino handiagoa izan.

3. Las Viviendas Tasadas Municipales, con sus garajes y trasteros, deberán cumplir los requisitos técnicos y de diseño que se establezcan en el planeamiento urbanístico o regulación municipal correspondiente o, en su defecto, las que se prevean para las Viviendas de Protección Oficial Tasadas (VPOT) de la Administración autonómica y, mientras éstos no se establezcan, los exigibles a las Viviendas de Protección Oficial de Régimen General.

## Artículo 5.- La calificación de las Viviendas Tasadas Municipales.

1. La calificación constituye un procedimiento administrativo a través del cual se comprueba la legalidad y el cumplimiento de las características y requisitos exigidos para las viviendas tasadas municipales y se procede, en su caso, a su declaración con los efectos que le corresponden con arreglo a la presente ordenanza y normativa aplicable.

2. La calificación de ambas clases de Vivienda Tasada Municipal (Régimen General y Régimen Especial) se tramitará previa o simultáneamente a las licencias de edificación y primera ocupación y se realizará mediante resolución del órgano municipal competente a petición del promotor o promotora. En casos excepcionales el procedimiento de calificación se podrá desarrollar con posterioridad a la licencia de 1ª ocupación.

Estas licencias no se otorgarán en caso de no solicitarse o no resultar procedente la calificación, en los supuestos que esta calificación venga impuesta por el Planeamiento o por normativa aplicable.

3. A la solicitud de calificación se acompañará cómo mínimo la siguiente documentación:

- a) Identificación del promotor o promotora (nombre o razón social, identificación fiscal y domicilio) mediante documento suficiente en derecho.
- b) Categorización de las viviendas según corresponda al Régimen General o al Régimen Especial.
- c) Relación de las viviendas a calificar y construir con señalamiento de la superficie útil de cada vivienda, garajes y trasteros, especificando su vinculación entre los diversos elementos.
- d) Determinación expresa del régimen de acceso y uso inicial de las viviendas, con expresa indicación y asunción de que su objeto y destino es la residencia y domicilio habitual y permanente de sus adjudicatarios/as.
- e) Precio de venta y/o renta de cada elemento, que no podrá ser superior al precio máximo de venta y/o renta establecidos en la normativa.

f) Babes-erregimenaren kalifikazioa iraunkorra dela dioen konpromiso idatzia. Horrenbestez, beti egongo da eskualdatzeko prezio gehienezko bati lotua, bai eta lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideei ere, lehenik Udalaren alde eta subsidiarioki Eusko Jaurlaritzaren alde.

4. Kalifikatzeko prozedura administratiboa honako egintza administratibo hauek osatuko dute gutxienez:

- a) Behin-behineko kalifikazioa hasieran, eskabidea egin ondoren.
- b) Behin betiko kalifikazioa, behin obrak amaitutakoan.

Araudi honen arabera onartzekoa den edozein tituluren bidez eskualdatze efektiboko, errentamenduko edo zesioko dokumentuak edota edozein eskritura publiko egin aurretik, dagokion dokumentu pribatua izenpetu beharko da, Udalak bere oniritzia eman diezaion.

Etxebizitzen eta haien eranskinen jabetza inter vivos eskualdatzen dituen edo haien gainean eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen dituen edozein dokumentu eskritura publiko bihur dadin, notarioek konprobatu beharko dute jarduera horiek lortua dutela dagokien oniritzia. Oniritzi hori gabe, eskualdaketak ezingo dira eskritura publikoan jaso, ezta Jabetzaren Erregistroan inskribatu ere.

Era berean, alde aurretik oniritzi hori lortu behar ez denean, notarioek Udalari notifikatu beharko dizkiote etxebizitza tasatuen titulartasunean gertatzen diren aldaketak honako kasu hauek:

- a) Jabetza, lurrazaleko eskubidea edo beste edozein eskubide erreal "mortis causa" eskualdatzean.
- b) Banantzeko edo dibortzioko epai judicial irmoaren bidez adjudikatzean.

## 6. artikulua.- Kalifikazioaren gutxienezko edukia.

Hala behin-behineko kalifikazioan nola behin betikoan, honako datu hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- a) Sustatzailearen identifikazioa (baltzuren merkatu-izena, identifikazio fiskala eta helbidea).
- b) Etxebizitzen mota, Erregimen Orokorriari ala Erregimen Bereziari dagokion arabera.
- c) Etxebizitza bakoitzaren, garajeen eta trastelekuen azalera erabilgarria, nola uztartuak dauden zehaztuz.

f) Compromiso escrito de que la calificación del régimen de protección es permanente hallándose, por lo tanto, permanentemente sujeta a un precio máximo de transmisión y a los derechos de tanteo y retracto a favor, en primer lugar, del Ayuntamiento y, subsidiariamente, a favor del Gobierno Vasco.

4. El procedimiento administrativo de calificación se compone, como mínimo, de los siguientes actos administrativos:

- a) La calificación provisional al inicio, tras la solicitud.
- b) La calificación definitiva, una vez finalizadas las obras.

Con carácter previo al otorgamiento de cualquier escritura pública o documentos de transmisión efectiva, arrendamiento o cesión por cualquier título admisible con arreglo a la presente normativa, deberá suscribirse el correspondiente documento privado para su visado por el Ayuntamiento.

Para la elevación a escritura pública de cualquier documento por el que se transmita inter vivos la propiedad de viviendas y sus anejos o de la constitución o transmisión de derechos reales sobre las mismas, los Notarios deberán comprobar que dichas operaciones han obtenido el correspondiente visado. Sin dicho visado, las transmisiones no se podrán elevar a escritura pública ni inscribirse en el Registro de la Propiedad.

Asimismo, no siendo necesaria la obtención del visado previo, los notarios deberán notificar al Ayuntamiento las modificaciones que se produzcan en la titularidad de viviendas tasadas en los siguientes supuestos:

- a) Transmisión mortis causa de la propiedad, derecho de superficie o cualquier otro derecho real.
- b) Adjudicación mediante sentencia judicial firme de separación o divorcio.

## Artículo 6.- Contenido mínimo de la calificación.

Tanto en la calificación provisional como en la definitiva deberán constar, como mínimo, los siguientes extremos:

- a) Identificación del promotor o promotora (nombre o razón social, identificación fiscal y domicilio).
- b) Clase de las viviendas según corresponda al Régimen General o al Régimen Especial.
- c) Superficie útil de cada vivienda, garajes y trasteros especificando su vinculación.

- d) Etxebizitzak eskuratzeko erregimena eta hasierako erabilera, espresuki adieraziz ezen etxebizitzaren xedea eta destinazioa haien adjudikatarioen ohiko egoitza eta bizileku iraunkorra izatea dela.
- e) Salmentako eta/edo errentako prezioa; zeina ezingo baita salmentako eta/edo errentako prezio gehienezkoa baino handiagoa izan.
- f) Babes-erregimenaren kalifikazioa iraunkorra dela eta, horrenbestez, beti egongo dela eskualdatzeko prezio gehienezko bati lotua, bai eta lehenetsuz erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideei ere, lehenik Udalaren alde eta subsidiarioki Eusko Jaurlaritzaren alde.

### **7. artikulua.- Kalifikazioa eta erregistroko inskripzioa eta notario nahiz erregistratzaileen kontrola.**

Udalaren etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioaren berri jakinaraziko dio Lasarte-Oriako Udalak Jabetzaren Erregistroari, afektaturiko ondasunetan hala jasota gera dadin eta, horrekin, erregistroko publikitate eman diezaien, bidezkotzat jotzen den moduan, bai lehenetsuz erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideei, lehenik Udalaren alde eta, kasua hala bada, subsidiarioki Komunitate Autonomoko Administrazio Orokorraren alde, bai halaber ordenantza honen arabera zehaztutako eskualdatzeko prezio gehienezkoari etengabe loturik egon behar diren mugari.

Notarioek uko egingo diote edozein kontratu eskritura publikoan formalizatzeari baldin eta Udalak bere oniritzia emanda behar bezala baimendua ez bada edo, kasu hala bada, Administrazioak lehenetsuz eskuratzeko eskubidea baliatzeko irautze-epeak notifikatu eta mugaeguneratu direla egiaztatzen ez bada.

Jabetzaren erregistratzaileek uko egingo diote edozein erosketa-titulu inskribatzeari baldin eta behar bezala egiaztatzen ez bazaie Udalaren baimena dutela, espresuki emana edo irautze-epea igaro delako.

## **III.- ERREGISTROA**

### **8. artikulua.- Etxebizitza-eskatzaileen erregistroa.**

Lasarte-Oriako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa sortuko da, zeinak xede nagusizat izango baitu babes publikoko etxebizitza, garaje eta trastelekuen adjudikazioa kudeatzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren datuak hornitzea Lasarte-Oriako Udalak esku hartzen duen kasuetan.

### **9. artikulua.- Izena emateko eskabidea.**

1.- Promozioetan parte hartzeko interesa duten edozein pertsonak behar bezala inskribatua egon beharko du Lasarte-Oriako Udalak horretarako eraturiko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan.

- d) Régimen de acceso y uso inicial de las viviendas, con expresa indicación de que su objeto y destino es la residencia y domicilio habitual y permanente de sus adjudicatarios/as.
- e) Precio de venta y/o renta, que no podrá ser superior al precio máximo de venta y/o renta.
- f) Que la calificación del régimen de protección es permanente hallándose, por lo tanto, permanentemente sujeta a un precio máximo de transmisión y a los derechos de tanteo y retracto a favor, en primer lugar, del Ayuntamiento y, subsidiariamente, a favor del Gobierno Vasco.

### **Artículo 7.- Calificación e inscripción registral y control de Notarios y Registradores.**

La Calificación Definitiva de las viviendas tasadas municipales, se comunicará por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria al Registro de la Propiedad a efectos de que se haga constar en los bienes afectados y se otorgue con ello publicidad registral en la forma que resulte procedente, tanto de los derechos de tanteo y retracto, a favor en primer lugar del Ayuntamiento, y, en todo caso, subsidiariamente a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma, como de la limitación de estar sujetas de forma permanente al precio máximo de transmisión establecido con arreglo a esta ordenanza.

Los Notarios denegarán la formalización en escritura pública de cualquier contrato cuando no esté debidamente autorizado por el Ayuntamiento mediante su visado o, en su caso, no se acrediten la notificación y el vencimiento de los plazos de caducidad para el ejercicio del derecho de adquisición preferente de la Administración.

Los Registradores de la Propiedad denegarán la inscripción de cualquier título de adquisición cuando no se les acredite debidamente la autorización, expresa o por transcurso del plazo de caducidad del Ayuntamiento.

## **III.- REGISTRO**

### **Artículo 8.- Registro de Solicitantes de Vivienda.**

Se crea el Registro de Solicitantes de Vivienda de Lasarte-Oria que tiene como finalidad principal la de facilitar los datos precisos para la gestión y control de la adjudicación de viviendas, garajes y trasteros de protección pública en que intervenga el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

### **Artículo 9.- Solicitud de inscripción.**

1.- Toda persona interesada en optar a las diferentes promociones deberá estar convenientemente dada de alta en el Registro de Solicitantes de Vivienda constituido al efecto por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

2.- Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatzeko eskabideak I. ERANSKINEAN ageri den ereduaren arabera egin beharko dira.

3.- Eskabideak adjudikazioa gertatuz gero 46. artikuluaaren arabera titular izan beharko duten bizikide-unitateko kide guztiek aurkeztu beharko dute.

Beraz, ezingo dituzte eskabideak indibidualki egin ezkontza bidez edo izateko bikote bidez lotutako pertsonak, legez bananduak ez baldin badaude.

4.- Inskribatuek Lasarte-Oriako Udalak eskaintzen dituen promozio guztietan parte hartu ahalko dute, eskabidean adierazitakoaren arabera eta betiere ezarritako baldintzak eta promozio bakoitzeko espezifikoak betetzen badira.

5.- Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioek gehienez 5 urteko indarraldia izango dute, eta horretarako espresuki egindako eskabide baten bidez berritu ahalko dira.

#### **10. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epeak.**

1.- Erregistroa zabalik egongo da epe-mugarik gabe, eta bertan eskaeragile guztiak jaso ahalko dira, beharresten diren gutxienezko baldintzak betetzen badituzte.

2.- Nolanahi ere, sustatzen den promozio bakoitzean, inskripzioak ixteko epe bat ezarriko da, promozio horretan sartu ahal izateko. Hartara, eskabideren bat epe horretatik kanpo aurkeztu bada, ezingo du promozio horren zozketan parte hartu, baina Erregistroan inskribatua geratuko da, etorkizuneko promozioetan parte hartu ahal izateko.

#### **11. artikulua.- Erregistroan inskribatzeko baldintza orokorrak.**

Erregistroan inskribatua izateko, beharrezkoa izango da etxebizitza eskuratzeko baldintza orokorrak betetzea, baina —hasiera batean— eskabidean bakarrik izango da nahitaezkoa betetzen direla deklaratzeko. Beraz, Erregistroan inskribatzeak ez du presuposatzen adjudikatario izateko beharretarako baldintza guztiak betetzen direla. Horren konprobazioa behin-behineko adjudikatario gertatzen den kasuan egingo da.

Hala ere, Udalak komenigarritzat jotzen badu betetzen direla konprobatzea, interesatuei errekerimendua egingo die, hamar eguneko epean aurkez dezaten baldintzetakoren bat betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa, adieraziz ezen, horrela egin ezean, beren eskaeretan atzera egindakotzat hartuko direla, horretarako aurretiaz emango den ebazpenaren ondoren.

2.- Las solicitudes de inscripción en el Registro de Solicitantes de Vivienda, deberán realizarse conforme al modelo que a tal efecto figura en el ANEXO I.

3.- Las solicitudes deberán ser presentadas por todos los miembros de la unidad convivencial que conforme el artículo 46 deban ser titulares en caso de adjudicación.

Por tanto, no podrán realizar solicitudes de forma individual las personas unidas por matrimonio o en pareja de hecho que no se encuentren separadas legalmente.

4.- Los inscritos podrán optar a todas las promociones que oferta el Ayuntamiento de Lasarte-Oria en función de lo señalado en la solicitud y siempre que se cumplan los requisitos establecidos y específicos de cada promoción.

5.- Las inscripciones en el Registro de Solicitantes de Vivienda, tendrán una vigencia máxima de 5 años, pudiendo ser renovadas mediante solicitud expresa al efecto.

#### **Artículo 10.- Plazos para la presentación de solicitudes.**

1.- El registro se encontrará abierto de forma permanente, de manera que se puedan incorporar al mismo todos los solicitantes cuando cumplan los requisitos mínimos exigibles.

2.- No obstante, en cada promoción que se promueva se establecerá un plazo de cierre de inscripciones para poder acceder a dicha promoción, de manera que toda aquella solicitud que se presente fuera de dicho plazo no podrá optar al sorteo de la citada promoción, si bien quedará inscrita en el Registro para poder participar en futuras promociones.

#### **Artículo 11.- Requisitos para la inscripción en el Registro.**

Para ser dado de alta en el Registro será necesario cumplir los requisitos generales de acceso, sin embargo -en principio- únicamente será necesario declarar su cumplimiento en la solicitud. Por tanto, el alta en el Registro no presupone el cumplimiento de los requisitos exigidos para ser adjudicatario. Cuya comprobación se realizará en caso de resultar adjudicatario provisional.

No obstante, si el Ayuntamiento considera conveniente comprobar su cumplimiento, requerirá a los interesados para que, en un plazo de diez días, presenten la documentación que acredite el cumplimiento de alguno de los requisitos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistidos de sus peticiones, previa resolución que se dictará al efecto.

## 12. artikulua.- Etxebizitza-eskatzailen erregistroan baja ematea.

Etxebizitza Eskatzailen Erregistroan baja emateko kausak izango dira honako hauek:

- 1.- Baja emateko eskatzaileak berak egindako eskabidea edo eskaera.
- 2.- Eskaeragilearen heriotza, baldin eta zertzelada horrek berekin badakar bizirik dirauen bizikide-unitateak ez betetzea etxebizitza eskuratzeko beharrezko baldintzak.
- 3.- Eskuratzeko baldintzetako edozein ez betetzea gerora agertutako gorabeherengatik.
- 4.- Etxebizitza, garaje edo trasteleku bat —kasuaren arabera— adjudikatzea, edo etxebizitza, garaje edo trasteleku baten salerosketako kontratu pribatua sinatzea.
- 5.- Inskripzioaren indarraldia amaitzea, hura espresuki berritu izan gabe.
- 6.- Erregistroan inskribatzearen ondoriozko betebeharrak ez betetzea.
- 7.- Bi etxebizitza-esleipeni esanbidez uko egitea edo etxebizitza bakar bati isilbidez uko egitea, betiere isilbidezko uko-egite hori dagoela aintzat hartuz, Administrazioak esleipen hori aurreikusitako bideetatik jakinarazteko betebeharra bete ondoren, esleipenduna aurkitu ez bada edo harekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan bada.

Erosketa-erregimeneko esleipenetan ez da etxebizitzari uko egitea aintzat hartuko, dena delako esleipen-prozeduran parte hartzeko konputagarriak diren lanaren etekinengatiko sarrerak izan dituzten pertsonenak, esleipena jakinarazteko unean langabezian aurkitzen diren pertsonenak, alegia.

- 8.- Etxebizitza baten esleipendun izateari uko egiteak, ukatzen denetik bi urteko epean sarrera-erregimen bereko eta etxebizitza-tipologia bereko etorkizuneko prozeduretan parte hartzeko aukera ezabatuko du. Hala ere, honako uko egite hauek ez dira kontuan hartuko:

➤ Bizikidetzta-unitatearen kide bakoitzeko 15 m<sup>2</sup> erabilgarriko ratioa baino azalera txikiagoa duen etxebizitza baten esleipena bada.

➤ Erosketa-erregimeneko esleipenetan, dena delako esleipen-prozeduran parte hartzeko konputagarriak diren lanaren etekinengatiko sarrerak izan dituzten pertsonak eta esleipena jakinarazteko unean langabezian aurkitzen direnak.»

## Artículo 12.- Baja en el Registro de solicitantes de Vivienda.

Serán causas de Baja en el Registro de solicitantes de vivienda:

- 1.- La solicitud o petición de baja realizada por el propio solicitante.
- 2.- El fallecimiento del solicitante, cuando esa circunstancia conlleve el no cumplimiento de los requisitos necesarios de acceso por la unidad convivencial supérstite.
- 3.- El incumplimiento sobrevenido de cualquiera de los requisitos de acceso.
- 4.- La adjudicación de una vivienda, garaje o trastero - según el caso- o la firma de un contrato privado de compraventa de vivienda, garaje o trastero.
- 5.- El transcurso del plazo de vigencia de la inscripción sin haber sido expresamente renovada.
- 6.- El incumplimiento de las obligaciones derivadas de la inscripción en el Registro.
- 7.- La renuncia expresa a dos adjudicaciones de vivienda o la renuncia tácita a una única vivienda, entendiéndose que existe dicha renuncia tácita, cuando cumplida por la Administración su obligación de comunicar dicha adjudicación por los medios previstos, no se haya sido posible localizar o establecer comunicación con el adjudicatario.

No se tendrá en cuenta la renuncia a adjudicaciones de vivienda en régimen de compra cuando se trate de adjudicaciones realizadas a personas que, habiendo sido receptoras de ingresos de trabajo computados para participar en el procedimiento de adjudicación de que se trate, estén en situación de desempleo en el momento en que se les notifica la adjudicación.

- 8.- La renuncia a la adjudicación de una vivienda impedirá, durante un plazo de dos años desde la fecha de dicha renuncia, la participación en procedimientos posteriores referidos al mismo régimen de acceso y tipología de vivienda. No obstante, no se tendrán en cuenta las siguientes renunciaciones:

➤ En todo caso, cuando se trate de la adjudicación de una vivienda cuya superficie útil sea inferior a la ratio de 15 m<sup>2</sup> útiles por cada miembro de la unidad convivencial.

➤ En el caso de adjudicación en compra, cuando se trate de adjudicaciones realizadas a personas que, habiendo sido receptoras de ingresos de trabajo computados para participar en el procedimiento de adjudicación de que se trate, estén en situación de desempleo en el momento en que se les notifica la adjudicación.»

➤ Lurrazaleko esleipenetan, uko egitea ez da kontuan hartuko, betiere eskaintako etxebizitzaren lurrazaleko eskubidea iraungitzeko epea 10 urtetik gorakoa ez bada.

- 9.- Etxebizitza-esleipen bakar bati uko egitea, eskatutako etxebizitza mota eta erregimen bakarra baldin bada. Ez dira kontuan hartuko aurreko ataleko bigarren paragrafoan aipatutako uko egiteak.

Inori erregistroan baja eman bazaio, ezingo da berriro inskribatu harik eta azken uko-egitea formalizatu zenetik kontatzen hasi eta bi urteko aldia igarotzen den arte.

### **13. artikulua.- Erregistroan inskribatzearen ondoriozko betebeharrak.**

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuek honako betebeharrak izango dituzte:

- 1.- Bizilekuaren aldaketak jakinaraztea.
- 2.- Bizikide-unitatean gertatutako aldaketak jakinaraztea.
- 3.- Egoera zibilean izandako aldaketak jakinaraztea.
- 4.- Inskripzioa mantentzeko eska daitezkeen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa aportatzeaz egiten zaizkien errekerimenduei agudoki erantzutea.

Aldaketa horiek jakinarazteko, horretarako onetsita dagoen eta III. Eranskinean ageri den eskabide-eredua erabiliko da.

## **IV.- ESKURATZEKO ERREGIMENA**

### **14. artikulua.- Etxebizitza eskuratzeko ezinbesteko baldintzak.**

Etxebizitzen tipologia eta promozio bakoitza eskuratzeko beharresten diren baldintza bereziaz gain, orokorreko eta ezinbesteko baldintzak izango dira honako hauek:

#### **A) BIZIKIDE-UNITATE BAT OSATZEA**

Adjudikatua gertatuz gero etxebizitzan biziko diren pertsonen osatuko dute bizikide-unitatea, gaur egun norekin bizi diren kontuan hartu gabe.

Bizikide-unitateak honela osatuak badaude:

➤ En el caso de adjudicación en derecho de superficie tampoco se tendrá en cuenta la renuncia cuando el plazo de extinción del derecho de superficie de la vivienda ofrecida no sea superior a 10 años.

- 9.- La renuncia a una única adjudicación de vivienda, en el caso de ser el único tipo de vivienda y régimen solicitado. No serán tenidas en cuenta las renunciaciones a que se refiere el segundo párrafo del apartado anterior.

Aquél a quien se le haya dado de Baja en el registro por renuncia, no podrá inscribirse nuevamente en él hasta que haya transcurrido un período de dos años a contar desde el momento en que se formalizó la última renuncia.

### **Artículo 13.- Obligaciones derivadas de la Inscripción en el Registro.**

Es obligación de los inscritos en el Registro de Solicitantes de Vivienda:

- 1.- Comunicar los cambios de domicilio.
- 2.- Comunicar las modificaciones producidas en la unidad convivencial.
- 3.- Comunicar las variaciones en el estado civil.
- 4.- Atender diligentemente los requerimientos que se les efectúen de aportación de la documentación necesaria a fin de comprobar el cumplimiento de los requisitos exigibles para el mantenimiento de la inscripción.

Para la comunicación de estos cambios se utilizará el modelo de instancia aprobado al efecto que figura en el Anexo III.

## **IV.- RÉGIMEN DE ACCESO**

### **Artículo 14.- Requisitos necesarios para el acceso a una vivienda.**

Además de los requisitos específicos que se exijan para el acceso a cada tipología y promoción de vivienda, serán requisitos generales y necesarios los siguientes:

#### **A) CONSTITUIR UNA UNIDAD CONVIVENCIAL**

Constituyen la unidad convivencial aquellas personas que vivirán en la vivienda que se adjudique en su caso, independientemente de con qué personas se conviva actualmente.

Las unidades convivenciales en el caso de estar constituida:

- Pertsona fisiko bakarraz; horrelakoetan, pertsona adinduna izan beharko da, edo emantzipatua egon, promozio bakoitzean eskaerak aurkezteko finkatzen den epea amaitzen denerako. Pertsona bakarrek osatutako bizikide-unitatetzat hartuko da.
- Hainbat pertsona fisikoz; horrelakoetan, bizikide-unitatetzat hartuko da etxe berean bizi diren bi pertsonak edo gehiagok osatua, betiere ezkontzaz edo ezkontzaren tankerako erlazio iraunkor batez elkartuak badaude, bai halaber adopzioz, tutoretzaz edo 3. gradura arteko odolkidetasunaz edota 2. gradura arteko afinitateaz elkartuak badaude. Hortik kanpo geratuko da adiskidetasunaren edo komenientziaren arrazoizko bizikidetzat.

Horren gainean, haxe hartu behar da kontuan:

- Bizikide-unitateko kideek pertsona fisikoari beharresten zaizkion baldintza berberak bete behar dituztela, familia-unitatea osatzen duten guztien adinari edo emantzipazio-egoerari dagokionez.
- Etorkizunean eratuko diren bizikide-unitateen kasuan, nahikoa izango da haren parte den pertsona fisikoetako bat —eta etxebizitzaren titular izango dena— Lasarte-Orian errolatua egotea.

## B) ETXEBIZITZARIK EZ EDUKITZEA:

1.- Etxebizitza eskuratu ahal izateko, bizikide-unitateko kide guztiek bete behar duten baldintza da etxebizitzarik ez edukitzea ez jabetzan, ez jabetza soilean, ez eta lurrazaleko edo gozameneko eskubidean, eskabidea egin aurreko **bi urteetan**. Baldintza horretatik kanpo geratuko dira lege araudiak aurreikusten dituen kasuak.

Etxebizitzari uztartu gabeko garajeak edo trastelekuak eskuratu ahal izateko, bizikide-unitateko kide guztiek bete behar duten baldintza da garajerik edo trastelekurik —kasuaren arabera— ez edukitzea ez jabetzan, ez jabetza soilean, ez eta lurrazaleko edo gozameneko eskubidean ere, eskabide egin aurreko bi urteetan.

2.- Eskatzaileek egoera horretan jarraitu beharko dute harik eta jabetzan edo lurrazaleko eskubidearen erregimenean adjudikatu zaien etxebizitza eskritura publikoan jasotzen den arte edo alokairuko kontratua formalizatzen den arte.

Etxebizitza libre baten salerosketako kontratua sinatzen bada, denboran geroratua, ulertuko da ez duela betetzen etxebizitzarik jabetzan, lurrazaleko eskubidean, gozamenean edo jabetza soilean eduki ezinaren baldintza.

- Por una persona física, ésta deberá ser mayor de edad o estar emancipada al cierre del plazo para presentar las solicitudes que se fijen para cada promoción concreta. Se entenderá unidad convivencial formada por una sola persona.

A este respecto, se debe entender:

- Que los miembros de la unidad convivencial deben reunir las mismas condiciones que las exigidas a la persona física en cuanto a edad o situación de emancipación de cada uno de los miembros que la conforman.
- En caso de unidades convivenciales que se vayan a constituir en el futuro, será suficiente que una de las personas físicas integrantes de la misma -y que vaya a ser titular de la vivienda- esté empadronada en Lasarte-Oria.

## B) CARENCIA DE VIVIENDA:

1.- Para poder acceder a una vivienda, todos y cada uno de los miembros de la unidad convivencial deberán carecer de vivienda en propiedad, nuda propiedad, derecho de superficie o usufructo, durante los **dos años** inmediatamente anteriores a la solicitud, salvo las excepciones previstas en la normativa legal.

Para poder acceder a garajes y trasteros no vinculados a vivienda, todos y cada uno de los miembros de la unidad convivencial deberán carecer de garaje o trastero -según el caso- en propiedad, nuda propiedad, derecho de superficie o usufructo, durante los dos años inmediatamente anteriores a la solicitud.

2.- Los solicitantes deberán continuar en dicha situación hasta el momento de elevar a escritura pública la vivienda que les haya sido adjudicada en propiedad, régimen de derecho de superficie o se formalice el contrato de alquiler.

La firma de un contrato de compraventa, diferida en el tiempo, de vivienda libre, se entenderá como el no cumplimiento del requisito de carencia de vivienda en propiedad, derecho de superficie, usufructo o nuda propiedad.

3.- Etxebizitzaren premiarik ez daukala joko da baldin eta, adjudikazioari uko egiteagatik, erregistroan baja eman badiote inskribatzeko eskabidea egin aurreko bi urteetan.

Hala ere, errentamenduko erregimenean babes ofizialeko etxebizitza baten onuradun izan direnak gerora etxebizitza baten onuradun izan daitezke lurrazaleko eskubidearen erregimenean.

#### 4.- Salbuespenezko egoerak.

Etxebizitzaren beharrean dauden pertsonatzat jo ahalko dira jabetzan, lurrazaleko eskubidean, gozamenean edo jabetza soilean etxebizitza baten titularrak direnak, baldin eta agirien bidez egiaztatzen badute legezko araudiak zehazturiko salbuespenezko egoera hauetako batean daudela:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatua dagoen etxebizitza bat izatea, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 17.3 artikuluan ezarritako erreferentzia-data baino gutxienez bost urte lehenago eskuratua, eskatzailearen ohiko bizileku iraunkorra izatea, eta ez betetzea bizitzeko egoki izateko azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan edo haren ordezkotako araudian ezarritako gutxienezko baldintzak.

b) Banantzeko edo dibortziatzeko prozesu baten ondoren, etxebizitza beste ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen familia-etxebizitza gisa judizialki esleitua bada, edo prozedura horren ondorioz besterendu bada eta, horren ondorioz, hipoteka-kargetatik ordaintzeke dagoen zenbatekoa deskontatu ondoren, ezkontide bakoitzak gehienez 75.000,00 euro eskuratu baditu.

Hitzarmen erregulatzailearen eta ebazpen judizial irmoaren fotokopia aportatu beharko da.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen etxebizitza bat izatea, aplikakizun zaion araudiaren arabera irisgarritasunerako baldintzak ez betetzea, eta haren titularra edo titularrak 70 urte edo gehiagoko pertsonak izatea.

d) Bizikide-unitateko kideren bat Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen etxebizitza baten jabe izatea, betiere haren azalera, guztira, pertsona bakoitzeko 15 m<sup>2</sup> erabilgarriko ratioa baino txikiagoa bada.

e) Jaraunspen edo dohaintzaren bitartez titularkidetasunean eskuratutako etxebizitza bat edo batzuk izatea, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- Titularkidetasuneko ezein portzentaje ezingo da % 50etik gorakoa izan.

3.- Se entenderá que no existe necesidad de vivienda cuando haya sido dado de baja en el registro en los dos años anteriores a la solicitud de inscripción por causa de renuncia de la adjudicación.

Esto no obstante, aquellos que hayan sido beneficiarios de vivienda en arrendamiento podrán ser posteriormente beneficiarios de vivienda en derecho de superficie.

#### 4.- Situaciones excepcionales.

Podrán considerarse como necesitadas de vivienda las personas que fueran titulares en propiedad, derecho de superficie, usufructo o nuda propiedad de una vivienda y acreditaran documentalmente hallarse en alguna de las situaciones excepcionales determinadas por la normativa legal:

a) Que se trate de una vivienda ubicada en la Comunidad Autónoma Vasca, adquirida con una anterioridad mínima de cinco años respecto de las fechas de referencia establecidas en el artículo 17.3 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, que constituya el domicilio habitual y permanente del solicitante y que no reúna las condiciones mínimas de habitabilidad establecidas en el Decreto 317/2002 de 30 de noviembre, o normativa que lo sustituya

b) Que se trate de una vivienda que haya sido designada judicialmente como domicilio familiar del otro cónyuge o pareja de hecho, tras un procedimiento de separación o de divorcio o que haya sido enajenada como consecuencia de dicho procedimiento habiendo obtenido por cada cónyuge un máximo de 75.000,00 euros, una vez descontado el importe pendiente de abono de las cargas hipotecarias existentes.

Se deberá aportar fotocopia del convenio regulador y de la resolución judicial firme.

c) Que se trate de una vivienda sita en la Comunidad Autónoma del País Vasco que no reúna condiciones de accesibilidad, a tenor de la normativa aplicable y cuyo titular o titulares sean personas de 70 años o más.

d) Que se trate de unidades convivenciales en las que alguno de sus miembros sea titular de una vivienda sita en la Comunidad Autónoma del País Vasco cuya superficie total sea inferior a una ratio de 15 m<sup>2</sup> útiles por persona.

e) Que se trate de una o varias viviendas adquiridas en cotitularidad por herencia o donación siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

- Ninguno de los porcentajes de cotitularidad podrá superar el 50%.

- Etxebizitzako partaidetzen balioa edo partaidetzak eskualdatzetik lortutako zenbatekoa ezingo da 75.000,00 eurotik gorakoa izan, betiere hipoteka-kargetatik ordaintzeke geratzen den zenbatekoa deskontatuta.

f) Bizikide-unitateko kideren bat mugikortasun urri iraunkorreko desgaitasunaren egoeran baldin badago, etxebizitzaren premia duela ulertuko da, betiere dokumentuekin honako hau egiaztatzen badu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko etxebizitza izanik, etxebizitza dagoen eraikinak ez dituela betetzen sarbideei eta igogailuei buruzko zehaztapenak, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasoak, zeinak onesten baititu hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak.

Kasu horretan, zertzelada hori egiaztatzen duen Udalaren ziurtagiria ekarri beharko da.

- Erosiko edo errentatuko den etxebizitzak aurreko atalean aipatzen diren sarbideei eta igogailuei buruzko zehaztapenak betetzea.

Ondorio horietarako, mugikortasun urri iraunkorreko desgaitutzat joko dira, minusbaliotasunaren maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen duen 1971/1999 Errege Dekretu abenduaren 23koaren 3.eranskinean jasotako artetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiriaren bidez honako egoera hauetakoren batean daudela egiaztatzen dutenak:

- Gurpil-aulkian konfinatuak daudenak.
- Oinez ibiltzeko erabat bi eskumakilaren beharrea direnak.
- D) eta H) bitarteko atalei dagozkien 7 puntu edo gehiago batzen dituztenak.

g) Etxebizitza baten jabetza soilaren titularrak babes publikoko etxebizitza bat alokairuko erregimenean lortu ahalko du, baldin eta etxebizitza horrek erabilera edo gozameneko eskubidearen karga badu, biziartekoa edo aldi baterakoa, babes publikoko etxebizitza errentatzeko beharrezko kontratuarena baino iraupen luzeagoarekin.

- El valor de las participaciones en vivienda o el importe obtenido en caso de su transmisión, no podrá superar los 75.000,00 euros, una vez descontado el importe pendiente de abono de las cargas hipotecarias existentes.

f) Que algún miembro de la unidad convivencial reúna la condición de discapacitado con movilidad reducida permanente, se considerará necesitado de vivienda siempre que acredite documentalmente:

- Que se trate de una vivienda ubicada en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en un edificio que no cumpla las determinaciones relativas a accesos y aparatos elevadores, contenidas en el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

En este supuesto se deberá aportar certificación municipal acreditativa de dicha circunstancia.

- Que la vivienda a adquirir o arrendar sí cumpla las determinaciones relativas a accesos y aparatos elevadores a que se refiere el apartado anterior.

A estos efectos se considerarán como discapacitados con movilidad reducida permanente, de entre los recogidos en el Anexo 3 del Real Decreto 1971/1999, de 23 diciembre, por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía, los que acrediten mediante certificación de la Diputación Foral de Gipuzkoa hallarse en alguna de las siguientes circunstancias:

- Los confinados en silla de ruedas.
- Los que dependan absolutamente de dos bastones para deambular.
- Los que sumen 7 puntos o más en relación con los apartados D) a H).

g) El titular de la nuda propiedad de una vivienda podrá acceder a una vivienda de protección pública, en régimen de alquiler, si dicha vivienda está gravada con un derecho de uso o usufructo, vitalicio o temporal con una duración superior a la duración del oportuno contrato de arrendamiento de la vivienda de protección pública.

5.- Aurreko ataleko c), d) eta f) kasuetan aipaturiko etxebizitza-titularrek bete behar duten baldintza da Lasarte Oriako Udalaren edo, haren ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku jarri beharko dutela etxebizitza, kargarik eta okupatzailerik gabe. Hortaz, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 17.3 artikuluan aipaturiko daten aurreko bi urteetan etxebizitza eskualdatu dutenak ez dira kontsideratuko etxebizitzaren premian dauden pertsonatzat.

Administrazioaren esku jartze hori erosketaren edo errentamenduaren bidez egin beharko da, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera.

Alkateak behar bezala arrazoituta emango duen ebazpenaren bidez erabakiko du ea onartzen duen edo ez bere esku utzitako etxebizitza. Lasarte-Oriako Udalak zuzenean eskuratu ahalko du etxebizitza, edo hark izendatzen duenaren bitartez.

Bere esku utzitako etxebizitza erostea erabakiz gero, etxebizitzaren titularrak edo titularrek aurkeztu beharreko balorazio-txostenean ezarriko den tasazio-balioaren araberrako prezioa ordaindu beharko da, baina prezio horrek inoiz ere ezingo du gaintitu erosi beharreko babes publikoko etxebizitzaren prezioa.

Aurkeztu beharreko Balorazio-txostena entitate finantzarioen tasazio-zerbitzuek edo hartarako sorturiko erakunde espezializatuak egin beharko dute, martxoaren 17ko 685/1982 Errege Dekretuan adierazitakoaren arabera. Baldin eta etxebizitzak eranskin uztartuak baditu, txostenak bereizi egingo ditu etxebizitzari eta eranskinei esleituriko balioak.

Etxebizitza bat errentamenduko erregimenean jartzea onartzen bada, gutxienez 5 urterako izan beharko du, gerora errentamenduan jarri ahal izateko, aplikakizun den araudiaren arabera. Errentamendu horrengatik jaso behar duten errentaren gehienezko zenbatekoa bat etorriko da adjudikatzen zaien etxebizitza babestuagatik ordaindu behar duten zenbatekoarekin.

Baldin eta Udalak etxebizitza bere esku uztea onartzen ez badu, jabeak edo jabeek etxebizitzaren titulartasunean jarraitzeko aukera izango dute, eta jabe izate hori mantentzea ez da kontsideratuko etxebizitzarik ez edukitzearen eskakizuna ez duela betetzen.

5.- El titular o titulares de vivienda a que se refieren los supuestos c), d) y f) del apartado precedente deberán cumplir la condición de ponerla a disposición del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, o en su defecto, de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, libre de cargas y ocupantes, por lo que quienes por haber transmitido la vivienda en los dos años anteriores a las fechas señaladas en el artículo 17.3 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, no serán considerados necesitados de vivienda.

La puesta a disposición habrá de hacerse bien en compra bien en arrendamiento en función del régimen de acceso a vivienda

Mediante Resolución debidamente motivada del Alcalde, se decidirá sobre la aceptación o no de la vivienda que se ha puesto a disposición. La adquisición podrá hacerse por parte del Ayuntamiento de Lasarte-Oria directamente o por quien éste designe.

El precio a abonar por la vivienda puesta a disposición en caso de su adquisición, será el valor de tasación que se determine en el Informe de Valoración a presentar por el titular o titulares de la vivienda, si bien dicho precio, en ningún caso podrá ser superior al de la vivienda de protección pública a adquirir.

El informe de Valoración a aportar deberá ser emitido por los Servicios de Tasación de las Entidades Financieras o por Entidades especializadas creadas para este objeto, de conformidad con lo señalado en el Real Decreto 685/1982, de 17 de marzo. En el caso de que la vivienda cuente con anejos vinculados el informe diferenciará el valor atribuido a la vivienda y a los anejos.

En el caso de aceptación de la puesta a disposición de una vivienda en régimen de arrendamiento deberá ser por un período mínimo de 5 años a fin de ser destinadas a su posterior arrendamiento conforme a la normativa aplicable. El importe máximo de la renta que deba percibirse por dicho arrendamiento será coincidente con el que haya de abonarse por la vivienda protegida que se les adjudique.

En el supuesto de que el Ayuntamiento opte por no aceptar la puesta a disposición el propietario o propietarios podrán continuar en la titularidad de la vivienda, sin que el mantenimiento de dicha condición de propietario, se considere como incumplimiento del requisito de carencia de vivienda.

### C) BIZILEKUA:

1.- Lasarte-Oriak kudeatzen dituen etxebizitza babestuak Lasarte-Oriako bizilagunentzat izango dira, betiere gutxienez azken 5 urteetan udalerrian erroldatuak badaude, edo azken 20 urteetan gutxienez 10 urtez Lasarte-Orian erroldatuta egon badira. Bigarren kasuan, ez da beharrezkoa izango eskaera egiten den unean Lasarte-Oriako Biztanleen Udal Erroldan inskribatua gotea.

Baldintza hori bizikide-unitateko kide diren titulargaietako batek gutxienez bete beharko du.

2.- Kasu guztietan, ezinbesteko baldintza izango da, erroldatuta egoteaz gain, bertan benetan bizi izatea. Hala, kontrako frogarik ezean, erroldako etxebizitza joko da egiazko bizilekutzat.

Ondorio horietarako, egiazko bizilekutzat joko da etxebizitzaren okupatzaileen etxe-premia zuzenean eta berehala asebetetzen dituen eta, gainera, legezko bizilekua dena, eskubideez baliatzeko eta obligazioak betetzeko lekua delako.

Nolanahi ere, kontrako erregulazio berariazkorik ezean, etxebizitza batek ohiko bizileku izateari utzi diola joko da baldin eta 3 hilabete baino gehiagoan jarraian desokupaturik badago, non eta etxebizitzak ohiko bizileku iraunkorra izaten jarraitzen duela egiazta dezakeen arrazoi justifikaturen bat ez dagoen.

### D) DIRU-SARRERAK:

1.- Bizikide-unitatearen **diru-sarrera** ponderatu gutxienekoak eta gehienekoak:

- Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak alokatzeko: 3.000,00 eurotik 35.000,00 eurora.
- Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren lurrazaleko eskubidea eskuratzeko: 9.000,00 eurotik 35.000,00 eurora.
- Erregimen bereziko etxebizitza tasatuak erosteko, lurrazaleko eskubidea eskuratzeko eta alokatzeko: 12.000,00 eurotik 45.500,00 eurora.
- Erregimen orokorreko etxebizitza tasatuak erosteko, lurrazaleko eskubidea eskuratzeko eta alokatzeko: Gutxienezkoa erregimen bereziko etxebizitza tasatuentzat ezarritakoa izango da, eta gehienezkoa 1,5eko indizea izango da BOEtarako indarrean dauden diru-sarrera gehienezkoei buruz (12.000,00 eurotik 52.500,00 eurora).

### C) RESIDENCIA:

1.- Las viviendas protegidas gestionadas por Lasarte-Oria, serán destinadas a vecinos de Lasarte-Oria que deberán llevar como mínimo los últimos 5 años empadronados en el municipio o, haber estado empadronado en Lasarte-Oria durante los últimos 20 años al menos 10 años, no siendo necesario estar inscrito en el Padrón Municipal de Habitantes de Lasarte-Oria en la fecha de la solicitud.

Este requisito lo deberá cumplir al menos uno de los futuros titulares que formen parte de la unidad convivencial

2.- En todos los supuestos será requisito necesario, junto con el empadronamiento, el de residencia efectiva. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que la residencia efectiva es la del domicilio del empadronamiento.

A estos efectos se entenderá por residencia efectiva aquella que satisfaga de manera directa e inmediata las necesidades de vivienda de sus ocupantes, y que además, se trate del domicilio legal, por ser el lugar de ejercicio de derechos y de cumplimiento de obligaciones.

En todo caso, salvo regulación expresa en contrario, se presumirá que una determinada vivienda ha dejado de ser domicilio habitual, cuando permanezca desocupada durante más de 3 meses de manera continuada, salvo causa justificada que permita acreditar que en dicha vivienda sigue constituyendo tal domicilio habitual y permanente.

### D) INGRESOS:

1.- **Ingresos** ponderados mínimos y máximos de la unidad convivencial:

- Para alquiler de viviendas de protección oficial de régimen general: desde 3.000,00 a 35.000,00 euros.
- Para adquirir el derecho de superficie de viviendas de protección oficial de régimen general: desde 9.000,00 a 35.000,00 euros.
- Para compra, adquisición del derecho de superficie y alquiler de viviendas tasadas de régimen especial: desde 12.000,00 a 45.500,00 euros.
- Para compra, adquisición del derecho de superficie y alquiler de viviendas tasadas de régimen general: El mínimo será el mismo que el establecido para las viviendas tasadas de régimen especial y el máximo será el índice de 1,5 respecto de los ingresos máximos vigentes para la VPO (desde 12.000,00 a 52.500,00 euros).

Mugikortasun urritu iraunkorreko desgaituen kasuan edo desgaitu psikikoen kasuan, babes publikoko etxebizitzak alokairuko erregimenean eskuratzeko, ez da beharretsiko gutxienezko diru-sarrerarik akreditatzea.

Jabetzako erregimenean edo lurrazaleko eskubidekoan eskuratzeko, nahikoa izango da 3.000,00 euroko diru-sarrera minimoak akreditatzea.

Halaber, ez zaie gutxieneko diru-sarreraren baldintza betetzea eskatuko genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten emakumeei, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurrien 2006ko urriaren 4ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduan beharresten den bezala, edo haren ordezkari gerora atera daitekeen araudiaren arabera.

2.- Aurreko atalean ezarritako kopuru-mugak automatikoki eguneratuko dira, indarrean dagoen araudiak horri buruz xedatzen duenarekin bat etorritik.

## E) BESTELAKOAK

Eskatzaileetarik inor ez da Erregistroan baja emana izango inskribatzeko eskabidea egin aurreko bi urteko aldirian, Ordenantza honen 12. artikuluko 7. eta 8. ataletan ezarritako arazoengatik.

### 15. artikulua.- Diru-sarreraren jatorria.

Diru-sarreraren baldintza betetzen dela onartzeko, beharretsiko da diru-sarreraren %90 behintzat laneko errendimendutik lortua izatea, edo jarduera ekonomikoetatik, profesionaletatik eta artistikoetatik, edota beketatik.

Etxebizitza babestu bat errentako erregimenean eskuratzen duten pentsiodunei ez zaie eskatuko baldintza hori betetzeko.

Administrazio Publikoaren gizarteratze-politikeetatik etorritako errenten kasuan, errentamenduen kasuan bakarrik konputatuko dira.

### 16. artikulua.- Konputa daitezkeen diru-sarrerak.

1.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioa Euskadiko Autonomia Erkidegoan egin behar duten pertsonentzat, eta, egin behar izan gabe ere, egin dutenentzat, honako hauek konputatuko dira: Pertsona Fisikoen Errentari dagokion Zergaren gaineko deklarazioaren zerga-oinarriak (aurrezki-oinarria eta oinarri orokorra), lan-etekinei aplikatutako hobariak, eta, kasua hala bada, egon litezkeen errenta zergagabeak, hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera konputatuak.

En el caso de discapacitados con movilidad reducida de carácter permanente o de discapacitados psíquicos, para el acceso a viviendas de protección pública en régimen de alquiler, no se exigirá acreditar ingresos mínimos.

Para su acceso en régimen de propiedad o derecho de superficie, bastará con acreditar ingresos mínimos de 3.000,00 euros.

Asimismo no se exigirá el cumplimiento del requisito de ingresos mínimos a aquellas mujeres que acrediten la condición de víctimas de violencia de género, tal y como se exige en la Orden de 4 de octubre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas de acción positiva en materia de vivienda para mujeres víctimas de violencia de género, o normativa posterior que le sustituya.

2.- Los límites de ingresos previstos en el apartado anterior se actualizarán automáticamente en consonancia con lo que al respecto disponga la normativa vigente.

## E) OTROS

Ninguno de los solicitantes habrá sido dado de baja en el Registro, en los dos años anteriores a la solicitud de inscripción, por los motivos establecidos en el artículo 12, apartados 7 y 8 de la presente Ordenanza

### Artículo 15.- Procedencia de los Ingresos.

Para poder considerar cumplido el requisito de ingresos se exigirá que al menos un 90% de los mismos procedan de rendimientos de trabajo, y/o rendimientos de actividades económicas, profesionales y artísticas y/o becas.

Este requisito no se exigirá a los pensionistas que accedan a una vivienda protegida en régimen de arrendamiento.

En el caso de rentas que provengan de políticas de inserción social de las Administraciones Públicas, las mismas sólo computarán para el caso de arrendamiento.

### Artículo 16.- Ingresos computables.

1.- Para personas con obligación de presentar la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en el País Vasco y aquellas que sin tener obligación la hayan realizado, se computarán las Bases Imponibles, general y de ahorro, de la declaración o declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente más las bonificaciones aplicadas a los rendimientos de trabajo y, en su caso, las posibles rentas exentas, computadas conforme a lo establecido en el apartado siguiente.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoan errentaren gaineko zergaren deklarazioa aurkeztu behar ez duten pertsonen kasuan, honako diru-sarrera hauek konputatuko dira:

- a) Laneko etekinen eta desenpleguko prestazioen kasuan, kontzeptu guztiengatik akreditaturiko diru-sarrera gordinen % 95.
- b) Pentsioen eta desenpleguko subsidioen kasuan, bai halaber kargarik gabeko dieten kasuan, kontzeptu guztiengatik akreditaturiko diru-sarrera gordinen % 100.

3.- Banandutako, dibortziatutako eta alargundutako pertsonen diru-sarrerak zehazteko orduan, edota izatezko bikoteetako kideenak, haietako bat hil bada edo bikotea desegin bada, egiaztatu beharreko diru-sarrerak matrimonioa edo izatezko bikotea indarrean zegoen aldi bati dagozkionean, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- a) Baldin eta erregimen ekonomikoa ondasunen separaziokoa bazen, eskatzaileagandik datozkion diru-sarrerak bakarrik konputatuko zaizkio.
- b) Gainerakoetan, senar-emazteen edo izatezko bikotearen diru-sarreraren % 50 bakarrik konputatuko da.

4.- Era berean, pentsio konpentsatzaileak kontuan hartuko dira, bai hura jasotzen duen ezkontide ohiaren diru-sarrera gisa, bai hura ordaindu behar duen ezkontide ohiaren diru-sarreraren minorazio gisa, baldin eta pentsio konpentsatzailea ordaindu behar duen ezkontide ohiak agirien bidez egiaztatzen badu benetan ordaindu duela.

5.- Baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioa aurkezteko obligazioa badago, Ogasun Foraletako edo beste administrazio tributario batzuetako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan deklaratu diren irabaziak bakarrik onartuko dira behar bezala akreditaturiko diru-sarreratzat.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioa aurkezteko obligaziorik ez duten pertsonen kasuan, onartzen zaie diru-sarreraren beste edozein moduren bitartez aurkeztea, zuzenbidean ontzat emana bada; besteak beste:

- Foru Ogasunaren egiaztagiria, zergaldi horretan (eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken ekitaldian) PFEZren deklarazioa aurkeztu beharrik ez duela egiaztatzen duena.
- Bizitza laboralaren ziurtagiria, Segurantzaren Sozialaren Lurraldeko Diruzaintzak egina.

2.- En el supuesto de personas que no tengan obligación de presentar la declaración del impuesto sobre la renta en el País Vasco se computarán los siguientes ingresos:

- a) En el caso de rendimientos de trabajo y de prestaciones de desempleo, el 95% de los ingresos brutos acreditados por todos los conceptos.
- b) En el supuesto de pensiones y de subsidios de desempleo así como dietas exceptuadas de gravamen, el 100% de los ingresos brutos acreditados por todos los conceptos.

3.- Para la determinación de los ingresos correspondientes a personas separadas, divorciadas y viudas, y de los miembros de la pareja de hecho en los supuestos de fallecimiento de uno de ellos o de disolución de la pareja, en los casos en que los ingresos a acreditar correspondan a un período en el que estaba constante el matrimonio o la situación de pareja, se seguirán los siguientes criterios:

- a) En el caso de que el régimen económico fuera de separación de bienes, se le computarán únicamente los ingresos que proviniesen del solicitante.
- b) En el resto, se computará el 50% de los ingresos del matrimonio o pareja de hecho.

4.- Asimismo las pensiones compensatorias serán tenidas en cuenta tanto como ingreso del ex cónyuge que la perciba como minoración de ingresos del ex cónyuge obligado a abonarla, siempre y cuando el ex cónyuge obligado a abonar la pensión compensatoria pruebe documentalmente que la ha satisfecho de forma efectiva.

5.- En el caso de existir obligación de presentar declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sólo se aceptarán como ingresos acreditados correctamente los ingresos que hayan sido declarados en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de las Haciendas Forales, o en otras Administraciones Tributarias.

En el supuesto de personas no obligadas a presentar la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se permite que acrediten sus ingresos por cualquier otro medio, aceptado en derecho; entre otros:

- Certificación de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración de IRPF en dicho ejercicio (último ejercicio vencido en el momento de presentación de la presente solicitud)
- Certificado de vida laboral expedido por la Tesorería Territorial de la Seguridad Social.

- Besteren kontura ari diren langileen kasuan: Kontzeptu guztietan jasotako diru-sarrera guztiei buruz enpresak edo enplegatzaileak eginiko dokumentua, ekitaldi horri dagokiona (10-T dokumentua).
- Pentsiodunen kasuan edo zeinahi beka, prestazio edo subsidio (gizarte-ongizateko laguntzak barne) jasotzen dutenen kasuan: horien ziurtagiria, ekitaldi horri dagokiona.

### 17. artikulua.- Diru-sarrerak jasotzen dituzten pertsonak eta konputa daitekeen aldia.

1.- Diru-sarrera konputakizunak jasotzen dituzten pertsonatzat hartuko dira bizikide-unitateko parte diren eta etxebizitzaren (edo, kasua hala bada, errenta-kontratuaren) titularkide izango diren guztiak.

2.- Periodo konputakizuna:

Pertsona Fisikoen Errenten gaineko Zergaren deklarazioa aurkezteko epea amaitutakoan, eskabidea egindako egunaren justu aurretik dagoen zergaldia da.

Promozio espezifiko bakoitzerako periodo konputakizunari dagokionez, horri buruz Ordenatza honen 40.2 artikuluan arautzen dena aplikatuko da.

### 18. artikulua.- Diru-sarreraren ponderazioa.

1.- Diru-sarreraren ponderazioa honako formula honen arabera egingo da:

$$SP = SK \times N \times A,$$

bakoitzaren esanahia hau delarik:

**SP:** Diru-sarrera ponderatuen zenbatekoa.

**SK:** Diru-sarrera konputakizunak, Ordenantza honen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**N:** Bizikide-unitateko kide kopuruaren arabera ponderatzeko koefizientea.

**A:** Koefiziente ponderatzailea, diru-sarreraren % 20 gutxienez aportatzen duten bizikide-unitateko kideen kopuruaren arabera.

2.- A eta N ponderazio-koefizienteak, urteko diru-sarrera ponderatuak zehazteko aplikatu beharrekoak, hauexek izango dira:

N	
1 kide:	1,00
2 kide:	0,95
3 kide:	0,90
4 kide:	0,85

- En el caso de trabajadores por cuenta ajena: Documento expedido por la empresa o empleador sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondientes a dicho ejercicio (Documento 10-T).
- En el caso de pensionistas o perceptores de cualquier beca, prestación o subsidio (incluidas ayudas de Bienestar Social): certificado de las mismas, correspondientes a dicho ejercicio.

### Artículo 17.- Personas Perceptoras de Ingresos y Periodo Computable.

1.- Se tendrán en cuenta como perceptores de ingresos computables a todas aquellas personas que formen parte de la unidad convivencial que vayan a ser cotitulares de la vivienda, o en su caso, del contrato de arrendamiento.

2.- Período computable:

Período impositivo que, vencido el plazo de presentación de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sea inmediatamente anterior a la fecha de la solicitud.

En lo que se refiere al período computable para cada promoción específica se estará a lo que al respecto se regula en el art. 40.2 de esta Ordenanza.

### Artículo 18.- Ponderación de los Ingresos.

1.- La ponderación de los ingresos se efectuará de acuerdo con la siguiente fórmula:

$$IP = IC \times N \times A,$$

siendo:

**IP:** cuantía de los ingresos ponderados.

**IC:** Ingresos computables, de acuerdo con lo señalado en el artículo 16 de esta Ordenanza.

**N:** coeficiente ponderador en función del núm. de miembros de la unidad convivencial.

**A:** Coeficiente ponderador en función del núm. de miembros de la unidad convivencial que aporten al menos el 20% de los ingresos.

2.- Los coeficientes de ponderación N y A, aplicables a la determinación de los ingresos anuales ponderados serán los siguientes:

N	
1 miembro:	1,00
2 miembros:	0,95
3 miembros:	0,90
4 miembros:	0,85

5 kide:	<b>0,75</b>
6 kide:	<b>0,65</b>
7 kide:	<b>0,55</b>
7 baino gehiago:	<b>0,50</b>

### A

1 jasotzaile:	<b>1,00</b>
2 jasotzaile:	<b>0,90</b>
3 jasotzaile edo gehiago:	<b>0,85</b>

5 miembros:	<b>0,75</b>
6 miembros:	<b>0,65</b>
7 miembros:	<b>0,55</b>
Más de 7:	<b>0,50</b>

### A

1 perceptor:	<b>1,00</b>
2 perceptores:	<b>0,90</b>
3 o más perceptores:	<b>0,85</b>

3.- Diru-sarreraren ponderazioak ezein kasutan ere ez du determinatuko Ordenantza honen 14.D).1 artikuluan ezarritako diru-sarrera gutxienekoetara ponderazio horren kausaz iristen ez diren eskatzaileak baztertea.

3.- La ponderación de los ingresos no determinará, en ningún caso, la exclusión de solicitantes que, por causa de la citada ponderación, no alcancen los ingresos mínimos previstos en el artículo 14.D).1 de esta Ordenanza.

## V.- ETXEBIZITZEI APLIKA DAKIOKEEN ERREGIMENA

### 19. artikulua.- Adjudikatzeko prozedurari lotutako etxebizitzak.

Ordenantza honen xedeko etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak Lasarte-Oriako Udalak sustaturiko promozio publiko edo kontzertatuetan zozkatzen direnak izango dira. Lurrazaleko eskubidearen erregimenean edo alokairuko erregimenean adjudikatu ahalko dira babes ofizialeko kalifikatuak, eta tasatuak, gainera, jabetzako erregimenean adjudikatu ahalko dira.

Ez dira adjudikatzeko prozedura honetan sartuko Udalak behar sozial premiazkoenei erantzuteko zozketatik kanpo uzten dituen etxebizitzak, ez eta bizileku berria emateko operazioetara destinatua ere.

### 20. artikulua.- Adjudikatzailen betebeharrak eta mugapen orokorrak.

1.- Adjudikatzailak etxebizitza horretan finkatuko du bere ohiko bizileku iraunkorra hiru hilabeteko epean, giltzak ematen dizkietenetik aurrera, eta epe horretan beharturik dago etxebizitza okupatzera, non eta baimena ematen ez zaion, hurrengo atalean azaltzen diren zertzeladetakoren bat gertatzeagatik.

2.- Baldin eta noizbait urtebetetik gorako aldi batez etxebizitza desokupatzekotan bada, adjudikatarioak alde aurretik idatziz jakinarazi beharko dio zertzelada hori Udalari, eta desokupatzearen arrazoiak azaldu beharko dizkio.

## V.- RÉGIMEN APLICABLE A LAS VIVIENDAS

### Artículo 19.- Viviendas sujetas al procedimiento de adjudicación.

Las viviendas, garajes y trasteros objeto de la presente Ordenanza serán aquéllas que se sorteen en las promociones públicas o concertadas promovidas por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Podrán adjudicarse en régimen de derecho de superficie o en régimen de alquiler las calificadas de protección oficial, y las tasadas podrán adjudicarse además en régimen de propiedad.

No se incluirán en este procedimiento de adjudicación las viviendas que el Ayuntamiento excluya del procedimiento de sorteo para atender las necesidades sociales más perentorias, ni las destinadas a operaciones de realojo.

### Artículo 20.- Obligaciones y limitaciones de los adjudicatarios.

1.- El adjudicatario de la vivienda fijará en ella su residencia habitual y permanente en el plazo de tres meses, a partir de la entrega de las llaves, obligándose a ocuparla en el mismo plazo, salvo que se otorgue autorización por concurrir alguna de las circunstancias que se exponen en el apartado siguiente.

2.- Si en algún momento se fuera a desocupar la vivienda adjudicada por un período superior a un año, el adjudicatario deberá previamente comunicar por escrito dicha circunstancia al Ayuntamiento y explicar las razones de la desocupación.

Udalak eskabidea baimendu edo ukatu ahalko du, behar bezala arrazoituta. Titularrak etxebizitzan bizitzea ezinezkoa egiten duten arrazoi behin-behinekoak agiriz egiaztatzen dituenean bakarrik emango da baimena.

Hauek ezartzen dira etxebizitza ez erabiltze hori justifikatu dezaketen arrazoi behin-behineko gisa:

- a) Lantokiko arrazoi behin-behinekoak
- b) Aldi bateko osasun-arrazoiak
- c) Senide baten mendekotasuna
- d) Deskribatutako horien tankerako beste edozein zertzelada

Horago aipaturiko arrazoi horiengatik gozatzeko denborak honako hauek izango dira:

- Lurrazaleko eskubidearen erregimenean: gutxienez urtebete, eta gehienez 5 urte.
- Alokairuko erregimenean: gutxienez 6 hilabete, eta gehienez urtebete.

Ez da baimenik emango baldin eta etxebizitza babestuen titularra, haren ezkontidea edo ezkontidearen tankerako erlazio afektiboaren bidez harekin bizi den pertsona beste etxebizitza baten jabe bada.

3.- Adjudikatariora behartuta dago, besteak beste, honako kontzeptu hauek ordaintzera:

- Hasiera batean, erosketako prezioa edo lurrazaleko eskubidearena, edo hileroko errenta alokairuko erregimenean, ezarritako estipulazioen arabera.
- Kontratua eta izenpetu behar dituzten dokumentu publiko guztiak prestatzearen eta formalizatzaren karia sortutako gastuak.
- Gainera, obligatua dago komunitatearen gastuetan hileroko kontribuitzera, etxebizitza eta eranskin bakoitzari dagokion partizipazio-kuotaren arabera. Komunitateko gastu horietan sartuko dira.
- Uraren eta Energiaren hornidurakoak, Zaborrenak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Ur Hondakindunak hustekoak eta etxebizitzari eta eranskinei egokitzen zaizkien udaleko nahiz estatuko tributu eta prezio publiko guztiak, oraingoak zein etorkizunekoak.
- Etxebizitzaren eta eranskinen aseguruak.

Azken batean, erabileraren ondorioz dagozkien gastu guztiak.

4.- Adjudikatarioraren betebeharra izango da etxepeko jabeen elkarteko bileretan parte hartzea eta haren administrazioa eramatea, okupatzen duen etxebizitzari hala dagokionean, bai halaber —kasua hala bada— etxejabeen elkarteko presidentea izatea.

El Ayuntamiento podrá autorizar o denegar motivadamente la solicitud. La autorización sólo se concederá cuando se acrediten documentalmente razones de carácter temporal que justifiquen la imposibilidad de su utilización como domicilio de la vivienda por su titular.

Como razones de carácter temporal que justifiquen dicha no utilización, se establecen las siguientes:

- a) Motivos laborales temporales
- b) Motivos de salud temporales
- c) Dependencia de un familiar
- d) Cualquier otra circunstancia de naturaleza análoga a las descritas

El tiempo a disfrutar por los motivos anteriormente referenciados serán los siguientes:

- En régimen de derecho de superficie: con un mínimo de 1 año y un máximo de 5 años.
- En régimen de Alquiler: con un mínimo de 6 meses y un máximo de 1 año.

No se concederá autorización si el titular de la vivienda protegida, su cónyuge o persona que conviva con él con análoga relación de afectividad a la de cónyuge, fueran propietarios de otra vivienda.

3.- El adjudicatario está obligado a abonar entre otros, los siguientes conceptos:

- Inicialmente el precio de compra o del derecho de superficie, o la renta mensual para el régimen de alquiler, según las estipulaciones establecidas.
- Los gastos ocasionados con motivo de la preparación y formalización del contrato y de todos aquellos documentos públicos que deban suscribirse.
- Además, está obligado a contribuir mensualmente a los gastos de Comunidad con arreglo a la cuota de participación que le corresponda a cada vivienda y anejos.
- Los de Suministro de Agua y Energía, Basuras, Impuesto de Bienes Inmuebles, Aguas residuales y todos los tributos y precios públicos municipales y estatales, actuales y futuros, que recaigan sobre la vivienda y los anejos.
- Los seguros de la vivienda y anejos

En definitiva, todos los gastos que por su utilización se deriven.

4.- Será obligación del adjudicatario participar en las reuniones de la Comunidad de Propietarios del portal y llevar la administración del mismo cuando corresponda a la vivienda que ocupa, así como -en su caso- ostentar la Presidencia de la Comunidad.

5.- Adjudikatariorik etxebizitza kontserbazioko, txukuntasuneko eta higieneko egoera onean mantendu beharko du, betebeharrak hori berari egotz dakiokkeen neurrian eta moduan, aintzat hartuz babes ofizialeko etxebizitzak erregelatzen dituen araudiko preskripzioak eta, alokairuko erregimenerako, gainera, errentamendu urbanoak partikulariki arautzen dituenekoak, eta araudi horien ondoriozko debeku eta mugapenei lotua dago.

Azken kasu horretan, errentariaren kargura izango dira etxebizitzaren eguneroko erabileraren ondoriozko higadurak eskatzen dituen konponketak.

Lurrazaleko eskubidearen eta alokairuaren kasuetan, adjudikazioa deuseztatutakoan, kontserbazioko egoera guztiz onean eta karga eta zergetatik libre bihurtu beharko dio Udalari.

6.- Adjudikatariorik, pertsonalki eta zuzenean, finka errentatua erabiltzearen eta gozatzaren kariaz gertatzen diren gorabehera eta ezbehar guztien erantzule egiten da, zibilki nahiz penalki, eta adjudikaturiko etxebizitzaren eta eranskinen kontinentearen aseguru bat eduki beharko du bere kargura izenpetua.

7.- Adjudikatariorik edozein unetan utzi beharko dio Udalari etxebizitzaren eta eranskinen inspektzio teknikoa eta zuzeneko kontrola egiten, ezarritako arauak behar bezala aplikatzen direla bermatze aldera.

8.- Adjudikatariorik ezingo du obrarik egin Udalaren idatzizko adostasunarekin ez bada, eta obra horiek inolaz ere ezingo dute etxebizitzaren konfigurazioa aldatu edota haren estabilitatea edo segurtasuna gutxitzea kausatu edo faboratu. Gainera, ezinbestekoa izango dute alde aurretik dagokien udal-lizentzia urbanistikoa eskuratzea.

